


GAUEKO AISIALDIA

SEXU-ERASOEI

AURRE

EGITEKO
PROTOKOLOA



PROTOCOLO
PARA HACER

FRENTE A

AGRESIONES

SEXUALES

OCIO NOCTURNO

IZENBURUA

Gasteizko gaueko aisialdi pribatuko testuinguruetan gertatzen diren sexu-izaeradun erasoak, jazarpenak, diskriminazioak eta jokabide gogaikarriak jorratzeko protokoloa

ZER ESPARRUTAN EGIN DEN

Ekin! Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Plana (2023-2030)

AHOLKULARITZA, DINAMIZAZIOA, IDAZKETA

GENERA Associació en defensa dels drets de les dones.
Laura Macaya Andrés eta Abel Huete Martínez.

www.vitoria-gasteiz.org

igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

1.	Sarrera
2.	Protokoloaren helburuak
3.	Esku-hartzearen ikuspegia
4.	Gaueko aisialdian gertatzen diren sexu-indarkeriak eta sexu-izaeradun ekintza gogaikarriak
5.	Gaueko aisialdiko testuinguruetan gertatzen diren sexu-izaeradun erasoen, jazarpenen eta diskriminazioen aurkako protokoloa a. Protokoloaren oinarrizko printzipioak b. Biktimari laguntzeko oinarrizko oharrak c. Arau-hauslearekin esku hartzeko oinarrizko oharrak d. Aurretiko kontu operatiboak e. Adingabeekin (erasotzaileak eta biktimak) jarduteko oinarrizko oharrak
5.1.	Hautemateko, laguntzeko eta esku hartzeko jarraibideak 1. agertokia Indarkeria edo sumisio kimikoa erabiliz egindako sexu-eraso larriak / Larderiaren edo derrigortze psikologiko larrien bidez egindako sexu-erasoak 2. agertokia Sexu-jazarpena 3. agertokia. Sexu-izaeradun diskriminazioak, jazarpen arin eta puntualak eta ekintza gogaikarri edo desatseginak
6.	Protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa

Eranskinak

1.

SARRERA

Gasteizko Udalaren Berdintasun Zerbitzuak ikusi zuen premiazkoa zela Gasteizko aisialdi pribatuko testuinguruetan gertatzen diren sexu-izaeradun erasoak, jazarpenak eta diskriminazioak jorratzeko protokolo bat diseinatzea. Horri begira, 2023aren amaieran, **proiektu pilotu** bat sustatu zuen gaueko aisialdiko establezimendu batzuekin, eta, hain zuzen ere, proiektu horren emaitza dugu honako dokumentu hau.

Proiektu pilotuari hasiera emateko, diagnostiko bat egin genuen, indarkeria matxistak jorratu edo prebenitzeari begirako ekintzak diseinatzeko erreminta nagusietako bat dela iritzita. Hala, diagnostikoa egiteko **esplorazio-prozesuari** ekin genion: ezinbesteko prozesua izan zen hori dokumentu hau taxutzeko unean, eta protokoloa aplikatuko den testuingurura (hau da, Gasteizko aisialdiguneetara) egokitutako politikak eta ekintzak diseinatzeko zenbait kontu giltzarri islatu zituen.

Esplorazio-prozesuan, Udalaren Berdintasun Zerbitzuko arduradun teknikoen laguntza eta Laura Macaya eta Abel Huete aktibista feministen (GENERA Associació en defensa dels drets de les dones) aholkularitza jaso genituen. Testuingurua esploratu eta ezagutzeko prozesuak, era berean, dokumentua kalitatezkoa ez ezik legitimoa ere izateko **elementu giltzarriak** eman zituen.

Hau da, esplorazio-prozesuak, batetik, protokoloa non aplikatuko den eta nork aplikatuko duen zehazteko **informazioa** eman zigun, eta, bestetik, prozesua bera eta amaierako dokumentua **legitimatze**ko balio izan zuen, berori aplikatu beharko duten pertsonak eta indarkeria matxisten joraketan **giltzarriak diren hiriko agenteak** inplikatu zituelako.

Esan bezala, diagnostikoaren emaitza dugu protokolo hau: bertan, detektatutako sexu-indarkeriako egoerak jorratzeko **ohar eta jarraibide komun** batzuk jasotzen dira, eta politika publikoan oinarritutako erremintak ematen zaizkie aisiagune pribatuetako arduradunei eta langileei, haien jarduketa biktimari babesa eta erreparazioa emateko oinarrizko printzipioaren inguruan batu dadin.

Horrenbestez, aisiagune guztiei modu bateratuan aplikatzeko oinarrizko **erremintak ematea** da protokoloaren helburu orokorra, bai biktimaren arretari lehentasuna eman dakion, bai komunitate osoa sentsibilizatu eta trebatu dadin indarkeria matxisten arloan; bereziki, jaiguneetan gertatzen diren sexu-indarkeriei dagokienez.

2.

PROTOKOLOAREN HELBURUAK

Protokoloaren helburua, batetik, gaueko aisiaguneetako **langileak sentsibilizatu eta trebatzea** da, bai indarkeria matxistak errazago prebenitu eta detektatu ditzaten, bai indarkeriaren bat edo diskriminazioren bat jasan dutenei entzuten, arreta ematen, informatzen eta ahalik eta egokien laguntzen asma dezaten; bestetik, ordea, **herritarrak oro har sentsibilizatzea** du xede, indarkeriak detektatu, ezagutu eta izendatu ditzaten eta, ondorioz, laguntza eska dezaten.

Epe ertain eta luzera begira, **gainera, gizartea eraldatu eta aldatzeko erreminta** izan nahi du protokolo honek, eta ez aisiaguneetan gertatzen diren egoera partikularrei bakarrik dagokienez, baita justizia feminista eraldatzailearen inguruko ideiak bultzatzeko tresna kultural gisa ere.

3.

ESKU-HARTZEAREN IKUSPEGIA

Eragindakoa erdigunean jartzeak berekin dakar haren bizipena eta jasotako mina baloratzea eta haren pertzepzioa edo gertaerei ematen dien esanahia entzutea. Zigor-arloko deskribapenetan, elementuok ez dira beti kontuan hartzen: Zigor Kodean jasotzen diren delituen definizioak zuzenean erabiliz gero, arau-hauslearen jokabidea eta haren erantzukizun posiblea azpimarratzen dira, erasotuaren esperientzia baino gehiago.

Hori dela-eta, protokolo honetan jasotzen diren jokabideak asko-askotan sexu-indarkeriatzat jo daitezkeela balioetsita — terminoaren askotariko dimentsioetan —, bereizketa batzuk egin behar ditugu, zeinek, lehenik eta behin, Zigor Kodea prozesuan **ez gailentzeko** bidea jarriko baitute. Esku-hartzea **Zigor Kodera bakarrik** mugatzen badugu, hasierako erantzuna emateko beste modu batzuk gutxietsiko ditugu, beharbada eragindakoarentzat egokiagoak eta hobeak diren beste erantzun batzuk.

Lehenengo arretaren eta harreraren arduradunak garen heinean, lehendabiziko erantzunak kaltetuari etorkizunean jarduteko aukera baldintzatu edo murriztea saihestu behar dugu, izan hark eskatu gabe zigor-bidea ireki dugulako, izan kontrako zentzuan, hau da, aukera hori deuseztatu dugulako, kontuan hartu gabe pertsonak geroago zigor-arloan salatzea erabaki dezakeela.

Oreka zaila da, baina baita ezinbestekoa ere. Hala, pertsonaren ukigabetasuna urratu den kasu oso larrietan salbu, lehenik eta behin **laguntza eta aholkularitza eskaintzea** da egokiena, **pertsonak erabakiak hartu ahal izan ditzan**. Horretarako, ezinbestekoa da sexu- eta genero-indarkeriak izendatu ahal izatea, izendatu ezinak ez dezan oztopatu une kritiko horretan erabakiak hartzea.

Horretaz gainera, aintzat hartu behar dugu **delitua egin duen pertsona tokian badago** edo *in fraganti* identifikatu edo harrapatu bada segurtasun pribatuak **atxiki ahalko duela**, segurtasun-kidegoen esku uzteko gero. Horrelakoetan, segurtasun publikoaren arduradunek beharrezko polizia-eginbideak egingo dituzte Agintaritza Judizialari gertaeraren berri emateko, pertsonak aurrerago salaketa jarri nahi badu ere. **Biktimak salaketa jartzen ez badu, ez da zigor-prozesurik hasiko.**

4.

GAUEKO AISIALDIAN GERTATZEN DIREN SEXU- INDARKERIAK ETA SEXU- IZAERADUN EKINTZA GOGAIKARRIAK

Jokabideen artean, bi talde handi bereizten ditugu:

- Batetik, **sexu-indarkeriatzat** jotzen dugun euritakoaren pean kokatzen diren egoera guztiak daude. “Indarkeriaren euritakoa” terminoak barruan hartzen ditu aipatutako arrazoiengatik pertsona baten eta haren osotasun eta borondatearen aurka egiten diren erasoak, nolabaiteko inpaktua eta larritasuna dutenean edo errepikatzen direnean.
- Bestetik, **jokabide** gogaikarriak, desatseginak eta **diskriminatzaileak** daude, larritasunaren arabera esku-hartzea eskatzen dutenak, betiere jokabidearen hartzailearengan eragindako inpaktua aintzat hartuta. Jokabideok indarkeria-egoeretatik bereiztean, erreparazioari eta jokabidearen transformazio eta aldaketari gehiago begiratuko dieten bideak esploratu ahalko ditugu esku-hartzean. Era berean, bereizketa horri esker, gure **esku-hartzeen proportzionaltasunari** eutsi ahalko diogu, eta kaltetua bera, emakumeak oro har eta generonahiz sexu-disidenteak gehiegi biktimizatzea edo zaugarri egitea saihestuko dugu.
- Azkenik, protokolo honek planteatzen duen ikuspegia oinarri hartuta esku hartzeak, kontuan izanik establezimenduetako arduradunek gaiari buruzko prestakuntza egokia jasoko dutela, modua emango du bikotearen edo bikote ohiaren barruan gertatzen diren jokabide matxistak errazago identifikatzeko. **Genero-indarkeriako** kasuetan, argitu egin beharko dugu jokabide hori –nahiz eta arina izan– puntuala, egoeraren arabera edo jarraitua den, elementu horrek egitateen larritasuna eta, hortaz, esku-hartzea ere aldatzen baititu.

Taula honetan, labur jaso ditugu protokoloan jorratzen diren sexu-indarkeriak eta indarkeria matxistak:

Sexu-indarkeriak (1. agertokia eta 2. agertokia):

1. agertokia	Indarkeria (indarra) edo sumisio kimikoa erabiliz egindako sexu-erasoak
	Larderiaren edo derrigortze psikologikoen bidez egindako sexu-erasoak
2. agertokia	Sexu-jazarpena

Tokiak berdintasunez erabiltzea galarazten duten sexu-izaeradun diskriminazioak, jazarpen arin eta puntualak eta ekintza gogaikarri edo desatseginak:

3. agertokia	Jazarpen arin edo puntuala
	Sexu-izaeradun jokabide gogaikarri edo desatseginak
	Ukitu puntuala edo nahi gabekoa izan daitekeena
	Sexuan oinarritutako zuzeneko diskriminazioa

Sexu-indarkeriak (jarduteko gidalerroen 1. eta 2. agertokiak)

TIPOLOGIA	DEFINIZIOA
<p>Indarkeria (indarra) edo sumisio kimikoa erabiliz egindako sexu-erasoak (delituak, Zigor Kodearen 178. eta 179. artikuluen arabera).</p>	<p>Mota honetako sexu-erasotzat hartuko ditugu indarra edo indarkeria erabiliz edota zaurgarritasun psikikoko egoera larri bat nahiz sumisio kimikoko egoera bat baliatuz biktimaren borondatea urratzen dutenak, sexu-harremanak edo -ukituak lortzeko helburuz.</p> <p>Honako hauek beti izango dira indarkeria edo sumisio kimikoa erabiliz egindako eraso larriak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Bortxaketak edo bortxaketa-saiakerak: indarkeriaren bidez edo zaurgarritasun psikikoko egoera bat nahiz behartutako edo eragindako sumisio kimikoko egoera bat edo sumisio kimikoko egoera oportunistak baliatuz sexu-harremana lortzea (edo lortzen saiatzea). Bortxaketa dagoela balioetsiko dugu, sexu-erasoan zakila baginatik, uzkitik edo ahotik sartu bada edo beste gorputz-atal bat nahiz objekturen bat lehenengo bi bideetatik edozeinetatik sartu bada.- Ukituak edo igurtziak, indarkeriaren bidez edo zaurgarritasun psikikoko egoera bat nahiz behartutako edo eragindako sumisio kimikoko egoera bat edo sumisio kimikoko egoera oportunistak baliatuz egindakoak.

LARRITASUNAREN ADIERAZLEAK

Gertaerei dagokienez:

- Erabilitako indarraren/indarkeriaren intentsitatea.
- Errepikapena, maiztasuna eta/edo jarraitutasuna.
- Zakila baginatik, uzkitik edo ahotik sartzea.
- Inguruneari dagokionez eragindako arriskua.
- Eraso non gertatu den.
- Gertaerak egoera bereziki iraingarri edo umiliagarrietan gertatzea.

Erasotzaileari dagokionez:

- Eraso egin duten pertsonen kopurua eta bakoitzaren inplikazioa.
- Nahitasuna.
- Biktimaren osotasun fisiko eta psikologikoan eragindako arriskua.
- Errepikatzeko arriskua.
- Gertaerak onartzea.
- Erreparazioa emateko borondatea.

Biktimari dagokionez:

- 16 urte baino gutxiago izatea.
- Dibertsitate funtzionala/desgaitasuna edukitzea eta horrek borondatea/aurkakotasuna adieraztea zailtzea.
- Zaurgarritasun kimikoa baliatzea.
- Sumisio kimikoa behartu edo eragitea.

Sexu-indarkeriak (jarduteko gidalerroen 1. eta 2. agertokiak)

TIPOLOGIA	DEFINIZIOA
<p>Larderiaren edo derrigortze psikologikoen bidez egindako sexu-erasoak (delituak, Zigor Kodearen 178. eta 179. artikuluen arabera).</p>	<p>Larderiaren edo derrigortze psikologikoen bidez egindako sexu-eraso esaten diegu erasotzaileak edo erasotzaileek derrigortzea, mehatxuak edo zuzeneko xantaiak erabiliz sexu-harreman edo-kontakturen bat lortzeko egiten dituztenei.</p> <p>Mota honetako sexu-erasoez ari gara erasotzaileak edo erasotzaileek presio esplizituak ezartzen, mehatxatzen, derrigortzen edo xantaia egiten dutenean edota biktimari sexu-harreman bat edo nolabaiteko intentsitateko sexu-hurbilpen bat eduki ala ez eduki aske erabakitze aukera zuzenean eta larri baldintzatzen dion esparrua sorrarazten dutenean.</p> <p>Egoera hauek definizio horretan sartzen dira: biktimak sexu-harreman bat edo sexu-praktika batzuk edukitzeari men egitea, ezezkoaren ondorio larri edo biolentoen beldur izateagatik edo erasotzaileak presioa eragin, xantaia egin edo barregarri uzteagatik edo erasotzaileak “espero bezala ari ez dela” sentiarazteagatik edo azaldutako mugei nahiz desadostasunari entzungor egiteagatik.</p>
<p>Sexu-jazarpena (delitua, Zigor Kodearen 173.4 artikuluen arabera).</p>	<p>Sexu-jazarpen deituko diegu pertsona bati zuzendutako sexu-izaeradun adierazpen, jokaera edo proposamenei, baldin eta biktimari egoera objektiboki umiliagarri, oldarkor edo larderiazkoa eragiten badiote, delitu larriagoak izatera iritsi gabe.</p> <p>Esparru honetan sartzen dira sexu-izaeradun mezuak botatzeko edo, sexu-eskaintzei ezezkoa eman ondoren, mehatxu egiteko helburua duten ekite errepikatu eta larderiazkoak, larriki oldarkorrak eta umiliagarriak edota inguratze hertsagarri jarraituak.</p>

LARRITASUNAREN ADIERAZLEAK

Gertaerei dagokienez:

- Erabilitako indarraren/indarkeriaren intentsitatea.
- Errepikapena, maiztasuna eta/edo jarraitutasuna.
- Zakila baginatik, uzkitik edo ahotik sartzea.
- Inguruneari dagokionez eragindako arriskua.
- Eraso non gertatu den.
- Gertaerak egoera bereziki iraingarri edo umiliagarrietan gertatzea.

Erasotzaileari dagokionez:

- Eraso egin duten pertsonen kopurua eta bakoitzaren inplikazioa.
- Nahitasuna.
- Biktimaren osotasun fisiko eta psikologikoan eragindako arriskua.
- Errepikatzeko arriskua.
- Gertaerak onartzea.
- Erreparazioa emateko borondatea.

Biktimari dagokionez:

- 16 urte baino gutxiago izatea.
- Dibertsitate funtzionala/desgaitasuna edukitzea eta horrek borondatea/aurkakotasuna adieraztea zailtzea.
- Zaurgarritasun kimikoa baliatzea.
- Sumisio kimikoa behartu edo eragitea.

Tokiak berdintasunez erabiltzea galarazten duten sexu-izaeradun diskriminazioak, jazarpen arin eta puntualak eta ekintza gogaikarri edo desatseginak. Banakako eta taldeko ekintzak. (Jarduteko gidalerroen 3. agertokia)

TIPOLOGIA	DESKRIBAPENA
<p>Jazarpen arin edo puntuala (zigorgarria izan daiteke, Herritarren Segurtasunerako Legearen 37.5 artikulua bidez).</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Sexu-izaeradun jokabideekin ekin eta ekin aritzea, onespelik gabe, gortetzen hasi edo jarraitzeko, kopa batera edo edozein drogatarara gonbidatzeko eta abarrerako. - Modu gogaikarri, desatsegin edo deserosoan ekin eta ekin aritzea, hitz egiteko eta abarrerako.
<p>Sexu-izaeradun jokabide gogaikarri edo desatseginak (zigorgarria izan daiteke, Herritarren Segurtasunerako Legearen 37.5 artikulua bidez).</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eremu publikoan helduen aurrean egindako exhibizionismoa edo masturbazioa. - Emakume batzuen edo genero- nahiz sexu-disidenteen duintasuna mindu dezaketen ahozko adierazpen umiliagarri edo iraingarriak. - Muga edo ezezko bat jasotzean haserretzea edo komentario iraingarriak egitea (itxura fisikoari, sexualitateari eta abarri buruz). - Norbaiti pasatzen ez uztea, ligatzeko asmoz, larderiarik edo derrigortzerik gabe. - Jarraitzea, noizbehinka sexu-izaeradun jokabideak edo mezuak botaz, mehatxurik eta derrigortzerik gabe.

LARRITASUNAREN ADIERAZLEAK

Gertaerei dagokienez:

- Kontaktu fisikoa.
- Errepikapena, maiztasuna eta/edo jarraitutasuna.
- Lekua.
- Gertaerak egoera bereziki iraingarri edo umiliagarrietan gertatzea.

Erasotzaileari dagokionez:

- Ekintza gogaikarria egin duten pertsonen kopurua.
- Nahitasuna.
- Biktimaren osotasun fisiko eta psikologikoan eragindako arriskua.
- Errepikatzeko arriskua.
- Gertaerak onartzea.
- Erreparazioa emateko borondatea.

Biktimari dagokienez:

- 16 urte baino gutxiago izatea.
- Dibertsitate funtzionala/desgaitasuna edukitzea eta horrek borondatea/aurkakotasuna adieraztea zailtzea.
- Zaurgarritasun kimikoa baliatze.

Tokiak berdintasunez erabiltzea galarazten duten sexu-izaeradun diskriminazioak, jazarpen arin eta puntualak eta ekintza gogaikarri edo desatseginak. Banakako eta taldeko ekintzak. (Jarduteko gidalerroen 3. agertokia)

TIPOLOGIA	DESKRIBAPENA
<p>Ukitu puntuala edo nahi gabekoa izan daitekeena (zigorgarria izan daiteke, Herritarren Segurtasunerako Legearen 37.5 artikulua bidez, delitua ez bada).</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ukitu edo igurtzi puntuala edo nahi gabekoa izan daitekeena. - Ukitzen edo besarkatzen tematzea, pertsona egoera horretan argi eta garbi gustura ez dagoenean.
<p>Sexuan oinarritutako zuzeneko diskriminazioa.</p>	<p>Sexuan oinarritutako zuzeneko diskriminazioa da pertsona bat sexua dela-eta antzeko egoeran dagoen beste norbait baino okerrago tratatzea edo tratatu ahal izatea.</p> <p>Hizpide dugun alorrean, zuzeneko diskriminazio mota honetan sartzen dira sexu-izaeradun jokaera edo eskaintza desatseginak, komentario sexista errepikatuak edo onetsi gabeko edozein jokabide sexual, aisialdiaz berdintasunez gozatzea galarazten badu.</p>

LARRITASUNAREN ADIERAZLEAK

Gertaerei dagokienez:

- Kontaktu fisikoa.
- Errepikapena, maiztasuna eta/edo jarraitutasuna.
- Lekua.
- Gertaerak egoera bereziki iraingarri edo umiliagarrietan gertatzea.

Erasotzaileari dagokionez:

- Ekintza gogaikarria egin duten pertsonen kopurua.
- Nahitasuna.
- Biktimaren osotasun fisiko eta psikologikoan eragindako arriskua.
- Errepikatzeko arriskua.
- Gertaerak onartzea.
- Erreparazioa emateko borondatea.

Biktimari dagokienez:

- 16 urte baino gutxiago izatea.
- Dibertsitate funtzionala/desgaitasuna edukitzea eta horrek borondatea/aurkakotasuna adieraztea zailtzea.
- Zaurgarritasun kimikoa baliatze.

5.

GAUEKO AISIALDIKO TESTUINGURUETAN GERTATZEN DIREN SEXU- IZAERADUN ERASOEN, JAZARPENEN ETA DISKRIMINAZIOEN AURKAKO PROTOKOLOA

a.

PROTOKOLOAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK

- **Erasotuari lehenatasunez arreta ematea:** Eraso baten ondoren, erasotua arreta egokia jasotzen duela ziurtatzea da lehenatasuna. Eraso larrietan (adibidez, bortxaketetan edo sexu-abusuetan), ezinbestekoa da pertsona une batean ere bakarrik egon ez dadin bermatzea, hala eskatzen duenean salbu.
- **Erasotuaren erabakiak errespetatzea:** Ezinbestekoa da erasotuaren erabakimena errespetatzea. Beharrezko informazioa eta aholkularitza egokia jaso behar ditu, eta kontuan hartu behar da erasotuaren esku dagoela bere prozesuaren eta horri lotutako ekintzen gaineko azken erabakia, baita erabakiok besteentzat ulergaitzak badira ere.
- **Zigor-prozeduran ez zentratzea:** Sexu-eraso baten salaketaren osteko zigor-prozesuak konplexuak izaten dira, eta erasotuarentzat zailak izan daitezke. Beraz, garrantzitsua da prozesuaz ondo informatzea eta egoera tratatzeko beste bide batzuk aintzat hartzea, erasotua suspertzeko prozesuari garrantzia emanez.
- **Erasoa arbuiatzeko jarrera:** Erasotzailearekin ez da konplizitaterik agertu behar, eta gaitzespen-jarrera irmoa erakutsi behar da haren ekintzen aurrean; ahal dela, haren ingurunea ere jarrera hori edukitzera bultzatuko dugu.
- **Informazio zehatza:** Erasotuaren intimitatearekiko errespetua lehenetsi behar da, estigmatizaziorik ez sortzeko. Halaber, eraso leporatu zaion pertsonaren errugabetasun-presuntzioa errespetatu behar da, eta ez da zabaldu behar egiaztatu gabeko informaziorik edo eraso nahiz salaketa faltsuei buruzko zurrumurrurik.

- **Gutxieneko esku-hartzearen printzipioa:** Lehentasunez, protokoloa kasurik larrietan aktibatuko da. Helburua ez da edozein elkarreragin erregulatzea, egoera arazotsuenetan esku hartzea baizik, betiere pertsonak hala eskatzen badute.
- **Beharrezko prestakuntzaren printzipioa:** Langile guztiak trebatu behar dira sexu-indarkeriaren eta gaur egungo gaueko aisialdian sarriak diren bestelako jokabide diskriminatzaileen inguruan.
- **Transformazio-printzipioa:** Protokoloak gizartea eraldatzeko tresna izan behar du, eta, kasu partikularretan, eragindakoari lagundu behar dio; halaber, baliagarria izan behar du sexu-indarkeriak prebenitzeko, gai horretan sentsibilizatzeko eta gatazkak jorratzeko modu ez hain kaltegarriak eta, ahal dela, komunitarioak sustatzeko, posible bada.
- **Osagarritasun-printzipioa:** Protokoloak ez ditu ekintza legal edo polizial posibleak ordezkatzen, ezta baztertzeko ere. Tresna bat gehiago da, baina, biktimak hala erabakitzen badu, baita bakarra ere.

b.

BIKTIMARI LAGUNTZEKO OINARRIZKO OHARRAK

- Gogoan izan protokoloan jorratzen diren kontu batzuk **sexu-indarkeriako egoera larriak** direla. Egoera horietan, bizipen horietatik “suspertu ezin garelako” mitoa da arazo handienetako bat. “Gerta dakizukeen txarrena da” bezalako ideiek ez diote biktimari laguntzen, eta bere esperientziaren gaineko narratiba katastrofistetara kondenatzen dute. Berrikusi zeure burua, eta ziurtatu ez duzula errepikatuko mitoa indartuko duen ideiarik.

Sexu-indarkeriaren biktimen inguruan dabilen beste **mito** bat

- **hiperzaurgarritasunarena** da, zeinak iradokitzen baitu biktima guztiek berdin esperientzatzen dituztela indarkeria-egoerak. Askotan, egoera horien biktimek erresistentzia- eta defentsa-mekanismoak aktibatzen dituzte, eta aitortza egin behar zaie, beren duintasuna zaintzeko. Ez tratatu biktimak atsegin emanaz, paternalismoz edo gehiegi babestuz. Lehenik eta behin, begiratu zer egoeratan dagoen.

Ez zaitetz neurritz gain aritu, eta **ez erakutsi** erasotutako bano

- **erasan handiagoa.** Neurtu emozioak: izan zaitetz enpatikoa, baina ez baldintzatu edo okertu haren egoera emozionala.

- **Hartu kontuan bere ingurunea**, eta, galduta baldin badago, bilatzen lagundu iezaiozu.
- **Errespetatu** bere erabakiak.
- Jardun aurretik eta bitartean, **berrikus itzazu** biktimekin nahiz erasoa edo diskriminazioa egin dutenekin diskriminatzaileak izan daitezkeen **aurreiritziak**. Ez errepikatu arrazakeria, homofobia, sexismoa, kapazitismoa edo klasismoa.
- Pertsona **guztiak ez dira berdin sentitzen** egoera beraren aurrean. Hala ere, haien bidelagun aritzeak lagundu egingo dizu gertaerak eta pertzepzioak norabide osasungarrienerantz bideratzen. Sentitzen duena erregulatzen edo gertaera bere testuinguruan kokatzen lagundu diezaiokezu, eta birtraumatizazioa edo esku-hartze adierazkorregiak saihestu, gertaerak jasan dituenak eutsi beharko baitio gero haien kontakizunari. Gertaerak min gutxiago eman dezan laguntzeak ez du esan nahi gertatutakoa ukatu edo zalantzan jarri behar denik: suspertu eta sendatzeko prozesu hobea eratzea da gakoa.
- **Zaugarritasun kimikoko** kasuetan edo sumisio kimikoaren susmoa dagoenean, kontuan hartu behar dugu batzuetan ezinezkoa izango dela, gure jarduketaren esparruan, erasoa oportunistak izan den ala sumisio edo kontsumo behartua egon den argitzea. Zaugarritasun kimikoko egoeraz gainera eraso, jazarpen edo ekintza diskriminatzaile bat egon denean edo horren susmoa dagoenean bakarrik jardungo dugu. Gainerako kasuetan, prebentzio-esparruan baino ez dugu jardungo, pertsona hori are babesgabeago edo indarkeriaren eraginpean ez geratzeko moduan, betiere hala eskatzen badigu.

c. ARAU-HAUSLEAREKIN ESKU HARTZEKO OINARRIZKO OHARRAK

- Funtsezkoa da kontuan izatea arau-hausleez ari garenean **askotariko egoerak** aurki ditzakegula. Hortaz, ekintza guztiek izan behar dute kasu bakoitzaren testuinguru zehatzarekin proportzionatuak eta egokiak.
- Gure **misioa biktima babestea** da, baina ez dugu ahaztu behar edozein delitu, eraso edo jazarpen leporatu zaion pertsonari oinarrizko eskubideak bermatu behar zaizkiola.

Erasotzailearekin ez dugu indarkeriarik erabiliko, eta ez dugu izango harekin umiliagarria den alferrikako jokabiderik, gure eginkizunen mugen eta kasu bakoitzaren premien barruan.

- **Jazarpen arineko** kasuetan edo ekintza diskriminatzaile edo gogaikarrietan (3. agertokia), **gatatzak konpontzeko** mekanismoak aktibatzen saiatu behar dugu. Garrantzitsua da erantzuleari pentsaraztea, erantzukizuna bere gain hartzera bultzatzea eta jokaera alda dezan, eragindako mina konpon dezan eta gertaerak errepikatuko ez direla ziurta dezan saiatzea.
- Helburu horiek lortzeko, baina, ezinbestekoa izango da **erantzulearen ingurunea inplikatzeko**. Senideek, lagunek edo adiskideek parte hartzea erabakigarria izan daiteke erantzukizuna eta jokaera-aldaketa sustatzeko.

d.

AURRETIKO KONTU OPERATIBOAK

- **Toki espezifikoak:** Toki bat gorde behar da arreta lasai eta zokoratua behar duten egoeretarako, hau da, pribatutasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko dituen toki bat.
- **Prestakuntza jaso duen pertsona:** Biktimei laguntzeko arloan prestakuntza daukan pertsona bat gutxienez arduratuko da egokitzen diren ekintzak burutzeaz. Pertsona horrek prestakuntza eta eskarmentua eduki behar ditu protokoloan deskribatzen diren bezalako egoera delikatuak maneiatzen.
- **Baliabideen mapa:** Ezinbestekoa da arreta-baliabide erabilgarrien mapa eguneratua edukitzea, erasotu, jazarri edo diskriminatu dutena horietara deribatu ahal izateko. Baliabideon artean, laguntza psikologikoa emateko zerbitzuak, lege-aholkularitza, biktimei laguntzeko zentroak eta abar egon daitezke.
- **Erasotzaileentzako baliabideak:** Halaber, garrantzitsua da protokoloan ezarritakoaren arabera jokabide biolentoak edo diskriminatzaileak izan dituzten gizonak edo pertsonak deribatzeke baliabideen berri izatea.

- **Babes-sarea:** Behar denetan babes gehigarria (esaterako, bidelaguntza edo sostengu emozionala) eman dezaketen pertsonen sare bat edukitzea komeni da. Sare horretan, laguntzeko langile gaituak, boluntarioak edo biktimen arretan laguntzeko prest dauden bestelako pertsonak egon daitezke.
- **Informazio inprimatua:** Garrantzitsua da zerbitzu instituzionaletara iristeko gomendioak jasoko dituen material inprimatua edukitzea, edo salaketa jarriz gero bideratu litekeen prozedura judiziala azalduko duena. Materialak argia, irisgarria eta eragindakoezin proportzionatua izan behar du, behar denaren arabera.

e.

ADINGABEEKIN (ERASOTZAILEAK ETA BIKTIMAK) JARDUTEKO OINARRIZKO OHARRAK

- **Adingabeen sexu-askatasuna:** Protokoloaren xede diren egoerak detektatu eta artatzeko orduan, oso garrantzitsua da gertakarietan sartuta dauden pertsonen adina eta profila kontuan hartzea. Zigor Kodearen arabera, sexua onesteko gutxieneko adina 16 urtekoa da; hortik aurrera, erabakitzeko gaitasuna duela balioetsiko da, betiere engainurik edo botere-harreman ezagunik ez badago. 16 urtetik beherakoen kasuan, ez da deliturik egongo bi parte-hartzaileek antzeko adina badute, harremanean elkarrengandik hurbil badaude edo heldutasun-maila bera badute. Kasu bakoitza banaka aztertu behar da.
- **Fiskaltzaren akzio penala eta prozedura hasi ala ez hasi erabakitzeko ahalmena.** Delitu baten biktima adingabea bada, Fiskaltzak salaketa jarri ahal du, eta nahikoa izango da hori, prozesu judiziala hasteko (adibidez, sexu-erasoetan, sexu-jazarpenetan, mehatxu edo derrigortze arinetan...). Hala, gertaerak edozein profesionalengana iristen badira, hark Fiskaltzari (edo guardiako epaitegiari, zeina Fiskaltzarekin harremanetan jarriko baita) eman beharko dio delituen berri.
- **Salatzeko ahalmena:** Ez dago norbere kabuz salaketa bat jartzeko gutxieneko adinik: edonork jar dezake polizia-etxean, Fiskaltzan edo guardiako epaitegian. Praktikan, baina, legezko ordezkariekin (helduekin) harremanetan jartzen saiatuko dira, adingabea prozesuan ondo egotea ziurtatzeko.

Hortik ondorioztatzen dugunez, adingabeak konfiantza gehien eragiten dion adin nagusikoak lagunduta jarri ahalko du salaketa, eta ez amarekin edo aitarekin nahitaez. Hala ere, adingabeak, salaketatik harago akzio penala (akusazio partikularra) baliatu nahi badu, legezko ordezkariekin egin beharko du nahitaez (hots, aitarekin, amarekin edo tutorearekin).

Alabaina, biktima adingabea duten delituak pertsegitzeko, ez da biktimaren akzio penala behar, Fiskaltzaren salaketa nahikoa baita.

5.1.

HAUTEMATEKO, LAGUNTZEKO ETA ESKU HARTZEKO JARRAIBIDEAK

EDOZEIN ELKARREKINTZA HASI AURRETIKO OINARRIZKO OHARRAK

- * Aurrean dugunaren genero-identitatea zein den ez badakigu, hau galde diezaiokegu: “Zein da zure izena? Gaztelaniaz aritzeko, zein izenordain duzu nahiago?”. Pertsona batzuek gaizki erantzun dezakete galdera horien aurrean; horrelakoetan, eskatu barkamena, eta, beharrezko ikusten baduzu, informatu protokoloaren arduradunei, lagundu diezazuten.
- * Protokolo honetan jasotako edozein jarduketa mota egin duen pertsona bikotekidea edo bikotekide ohia bada, egoera puntuala, egoeraren arabera edo jarraitua den argitu beharko dugu, pertsonak uzten badigu. Jokabidea errepikatua eta jarraitua bada, bikoteak edo bikotekide ohiak ezarritako genero-indarkeriako kasu posible gisa jorratu beharko dugu auzia.

1. AGERTOKIA

- Indarkeria edo sumisio kimikoa erabiliz egindako sexu-eraso larriak.
- Larderiaren edo derrigortze psikologiko larrien bidez egindako sexu-erasoak.

ERASOTUARI DAGOKIONEZ

1. Honelako eraso baten lekuko izan edo horren berri eduki eta berehala emango diogu arreta biktimari, berehalako arriskurik ez daukala ziurtatzeko. Bere egoera fisiko, emozional eta toxikologikoaren balorazio azkar bat egingo dugu. Jar zaitez harremanetan protokoloaren erreferentearekin; egon lasai, ez piztu alarmerik, eta saia zaitez daukazun informazioa laburbiltzen.
2. Pertsonak premiazko mediku-arreta behar badu, lehenik eta behin abisatu osasun-zerbitzuei, establezimenduak zerbitzu hori badu, eta, bestela, deitu 112ra. Lagundu osasun-langileei biktimari arreta emateko propio prestatutako tokiraino, eta abisatu protokoloaren arduradunari. Izan kontuan:
 - Bortxaketetan eta sexu-erasoetan, DNA-laginak dira froga objektibo bakarrak. Erasoaren sumisio kimikoaren bidez egin bada, lehenengo orduak giltzarriak izango dira biktimaren gorputzean substantzia jakin batzuk detektatzeko. Hori dela-eta, ez garbitu edo dutxatzea eta arropaz ez aldatzea aholkatu behar diozu biktimari, eta, ahoaren bidez bortxatu badute, esaten dioten arte elikagairik eta edaririk ez hartzeko esan.
3. Erasotua bere kordean badago eta presazko osasun-premiarik erakusten ez badu, gune seguru batera eramateko baliabideak aktibatu behar dituzu, eta protokoloaren arduradunari abisatu, arretaz arduratu daitezten. Arduradunak Tximeletak zentrorra deituko du, hots, sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko zentrorra (650 80 10 80), eta haiek biktimak behar duen arreta integrala eskainiko dute, baita tokira bertaratuta ere.
4. Gero, eremuan lagunik duen galdetu behar diozu erasotuari, laguntzen diozuen bitartean aurrean egon dadin.
5. Garrantzitsua da trankil egotea eta lehentasunezkoa duzun zereginari heltzea: biktimari lagundu eta entzun, profesionalak egoera beren gain hartu arte. Komeni da zuk gutxi hitz egitea eta jarduketa langile profesionalen esku uztea.
6. Laguntza profesionala iritsi zain zaudetela, informazio hau eman diezaiokezu:
 - Salaketa une horretan jarri nahi badu, poliziari deituko diozue, tokian ager dadin.

- Erasotuak salaketa jarri nahi badu baina une horretan poliziarekin edo larrialdi-zerbitzuekin aritu nahi ez badu, ziurtatu bakarrik alde egiten ez duela, berak hala eskatzen badu salbu; halaber, salaketa jartzera konfiantzazko norbaitekin joan dadin aholkatuko diogu.
7. Lasaitzeko ukitzea behar duela uste baduzu, galdetu halakorik behar duen, eta iradoki, adibidez, eskua ematea nahi duen.
 8. Gertatutakoa kontatzen badizu, ez moztu, eta, batez ere, ez eman bere jokaerari buruzko epairik edo balio-iritzirik.
 9. Aitortu gertaerak larriak izan direla, baina erregulatu emozioak. Ezin duzu erakutsi erasotuak baino sumindura, haserre edo larritasun handiagoa. Pentsatu gerora berak kudeatu beharko dituela erasoak eragindako sentimenduak eta zu ez zarela hor egongo.
 10. Azkenik, jakin ezazu zigor-prozesua prozesuaren zati bat baino ez dela eta bere bizipenean egon daitekeela, edo ez. Garrantzitsua da adieraztea suspertze emozionala oso garrantzitsua dela eta prozesuan bere premiak direla protagonistak; halaber, azpimarratu salatu nahi duen ala ez gorabehera bere denborak eta premiak direla lehentasuna. Horrenbestez, baliteke erasotuak une horretan salatu nahi ez izatea eta aurrerago egin nahi izatea edo, bestela, inoiz nahi ez izatea: erabakia edozein dela ere, informazio-eskuorria (eranskina) emango diogu.
 11. Biktima artatzeari utzi gabe, erasotzailea ikusi baduzu, informatu segurtasun-langileei, eta saia zaitez berori deskribatzeko elementu bereizgarriren bat ikusten. Ezaugarri horietako bat arrazarekin, fenotipoarekin edo jatorri etniko posiblearekin lotuta badago, saiatu aurreiritzietan oinarritutako mezu alarmistarik ez eransten.
 12. Artatzen ari zaren pertsonak jarraitu nahi ez duela eta alde egin nahi duela esaten badizu uneren batean, bere erabakia onartu, eta eskaini iezaiozu protokoloaren arduradunak artatzeko aukera; era berean, gomendatu lagunduta joan dadila, eta eskaini zeure burua konfiantzazko pertsonak bilatzen laguntzeko, bakarrik badago. Eman iezaiozu eskuorria, eta gomendatu prest dagoenean Tximeletak zentroarekin harremanetan jartzeko.

ERASOTZAILEARI DAGOKIONEZ

1. Lokaleko segurtasun-talde pribatuko kidea ez bazara, gertatutakoaren berri emango diozu segurtasun publiko edo pribatuari, premisa hauek kontuan hartuta:
 - Talde profesionaleko edozein kidek atxiki ahalko du erasotzailea, betiere in fraganti edo erasotzeko zorian harrapatu bada, jarraian segurtasun publiko edo pribatuaren esku uzteko xedez. Dena dela, jarduketa hori langile espezializatuei uztea gomendatzen dizugu.
 - Erasotzailea in fraganti harrapatzen baduzu edo ikustea lortzen baduzu, jarri arreta identifikatzen lagunduko duten elementu bereizgarrietan, eta eman informazio hori segurtasun pribatu edo publikoko langileei. Hautatu elementu bereizgarriak, eta saihestu arraza- edo klase-ezaugarriak, susmoa ez dadin hedatu ezaugarri berberak dauzkaten pertsonengana.
2. Segurtasun pribatuko langilea bazara, honela jokatu duzu:
 - Talde profesionaleko edozein kidek atxiki ahalko du erasotzailea, betiere in fraganti edo erasotzeko zorian harrapatu bada. Dena dela, pertsona identifikatu ahal izateko elementu giltzarri eta bereizgarriak detektatzea gomendatzen dizugu, eta poliziari informazio hori ematea. Hautatu elementu identifikagarriak; baten bat arraza- edo klase-ezaugarria bada, saia zaitetz aurreiritzietan oinarritutako mezu alarmistarik ez gaineratzen.
 - Segurtasun-zaintzailea zaren heinean, in fraganti harrapatutako erasotzailea atxiki behar duzu; hala ere, susmagarriak ere atxiki ditzakezu, berehala Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoen esku uzteko (Segurtasun Pribatuari buruzko 5/2014 Legearen 32. artikulua). Hala, zerorrek nahiz poliziak has ditzakezue froga ziurtatzeko behar diren prozedurak, baina horrek ez du esan nahi eragindakoari presiorik ezarri behar zaionik berehala salatu dezan.

- Eraso in fraganti edo gertatu aurre-aurretik edo ondo-ondoren detektatzen ez bada, erasotzailea deskribatzea eska diezaiokezu erasotuari, betiere horretarako lasai dagoela ikusten baduzu. Horrelakoetan, erasotzailearen edo erasotzaileen arropaz, osagarriez, berarekin zeuden pertsoez, pertsona horien arropaz... galde diezaiokezu. Hautatu elementu identifikagarriak; baten bat arraza- edo klase-ezaugarria bada, saia zaitetz aurreiritzietan oinarritutako mezu alarmistarik ez gaineratzen.
- Kontuan hartu askotan ezingo duzula erasotzailea aurkitu eta horrek larritasuna edo ondoeza eragin ditzakeela. Alabaina, gogoan izan biktimari arreta ematea dela lehentasuna eta ez delitua pertsegitzea, ez dezazun eduki delitutzat jo daitekeen jokaerarik, nahiz eta asmorik onenarekin egin (adibidez, errugabetasun-presuntziorako eskubidea urratzea, legez kanpo atxilotzea, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea urratzea eta abar).

2. AGERTOKIA

SEXU-JAZARPENA

- Lehenik eta behin, egoeraren ebaluazio azkarra egin behar dugu, larritasun-parametroen arabera (begiratu adierazleen taula). Parametro horietan oinarrituta, eragindakoari eskaintza bat edo beste egiteko aukerak aztertuko ditugu.
- Era berean, alkohol- edo droga-kontsumoaren eragina ebaluatu behar dugu, bai jazarriarengan, bai jazarlearengan.
- Tximeletak (650 80 10 80) zentroa guztiz baliozkoa da kasuotan arreta osoa emateko. Horri buruzko informazioa eman diezaiokezu, edota triptikoa eman, berak deitu nahi badu ere, edo, are, bere ordeztzeko prestasuna erakutsi. Ezetz esaten badizu, beti deitu ahalko du berak gero.

JAZARRIARI DAGOKIONEZ

1. Beti ziurtatu behar dugu jazarpena jasaten egon litekeenak ere horixe uste duela eta gure laguntza behar duela. Hori dela-eta, beste batek abisatu badigu, lehenik eta behin harengana hurbilduko gara beti, ondo dagoen eta laguntzarik behar duen galdetzeko.

2. Jazarria izaten ari dela egiaztatzen badugu, protokoloa dagoela eta taldeak arta dezakeela esango diogu, gertatutakoa komentatu edo horren berri eman nahi badu ere.
3. Pertsona modu proportzionatuan ari bada bere burua defendatzen, ondo hautatu beregana hurbiltzeko momentua.
4. Ondo dagoela eta laguntzarik behar ez duela adierazten badu, esan iezaiozu edozein unetan jaso ahalko duela taldearen laguntza eta establezimendua sexu-askatasunarekin konprometituta dagoela: argi adierazi iezaiozu behar izanez gero lagundu egingo diozuela.
5. Pertsonak ondo ez dagoela eta protokoloaren arduradunek artatzea nahi duela adierazten badu, jar zaitez erreferentearekin harremanetan, ahalik eta azkarren, eta komunikatu zer behar duzun, lasai. Erasotuari galde iezaiozu gertatutakoari buruz, hiru helburu nagusi hauek aintzat hartuta:
 - Erasotuari aurreiritzirik gabe entzun eta laguntzeko gune bat eskaintzea.
 - Gertaerak pertsonarengan izan duen inpaktua baloratzea, baita gertaeren larritasuna ere.
 - Gertaerei buruzko informazio gehiago lortzea: non gertatu den, nork egin duen...
6. Sexu-jazarpeneko kasua bada, salaketa penala jar dezakeela esango diogu pertsonari, eta informazio orokorra jasotzen duen triptikoa (eranskina) eman. Salaketa jarri nahi badu, poliziari deituko diogu jazarriak hala eskatzen duenean. Halaber, establezimenduko segurtasun pribatuari abisatzeko aukera dugula esango diogu, baliabide hori edukiz gero.
7. Pertsonak atzera egin eta alde egin nahi duela esaten badizu uneren batean, bere erabakia onartu, eta eskaini iezaiozu protokoloaren arduradunak artatzeko aukera; era berean, gomendatu lagunduta joan dadila, eta eskaini zeure burua lagunak bilatzen laguntzeko, bakarrik badago. Horrelakoetan, elkarriketa amaitutakoan, komenigarria izango litzateke protokoloaren arduradunari zer gertatu den komunikatzea, intzidentziak bildu ahal izan ditzan.

8. Jazarriak ez baditu gertaerak zigor-bidean salatu nahi, protokoloaren erreferentearekin esku-hartzea egiteko aukera eskainiko diogu. Esku-hartzean, jazarlearekin hitz egingo dugu, hausnartu eta gertatutakoaren erantzukizuna bere gain hartzera bultzatzeko helburuz, haren ingurunean inplikatzearekin batera.
9. Jazarriak ez baditu gertaerak zigor-bidean salatu nahi eta protokoloaren arduradunak esku hartzea nahi ez badu baina jazarlea botatzea eskatzen badu, segurtasuneko kideei deribatuko dizkiegu horretarako behar diren ekintzak. Pertsona kanporatzeak ez du galaraziko protokoloaren arduradunek erantzukizuna egozteko eta sentsibilizatzeko esku-hartzerik egitea, egin ahal bada.
10. Jazarria bakarrik ez badago eta jai-eremuan jarraitu nahi badu, beti lehenetsiko dugu bere ingurukoekin jai-girora itzultzea, gutxieneko esku-hartzearen printzipioa betetzeko.
11. Bakarrik badago eta laguntza nahi badu, lagunak edo berekin etorri direnak aurkitzeko laguntza eskainiko diogu.
12. Alkohola edo beste droga batzuk hartzeagatik erasanda dagoela hautematen badugu, alkoholik gabeko edari bat eskainiko diogu, doan, eta lasai egoteko edo, beharrezkoa balitz, suspertzeko toki bat utziko diogu. Erasana larria bada eta arretea ematea galarazten badu, osasun-zerbitzuetara deribatuko dugu; horrelakoetan, baina, harekin jarraituko dugu, gunere horretan ere babesa izan dezan.
13. Ustez jazarria izan den pertsona drogak edo bestelako substantziaren bat hartzeagatik oso erasanda dagoela eta horrek bere ekintzen gainean erabakitzeke ahalmenari dagokionez zaurgarritasun-egoera handiagoan jar dezakeela hautematen baduzu, abisatu berehala protokoloaren arduradunari. Jarraibide hori baliozkoa izango da, baldin eta, kontsumoaz gainera, pertsona jazarria izaten ari delako edo berehala izango delako susmoa edo zantzua badago. Ez da aplikatuko kontsumoa bakarrik badago, jazarpen- edo eraso-zantzurik gabe. Azken kasu horretan, osasun-langileei dagokie erreferentzia. Horrek ez du galaraziko, baina, egoera horretan dagoen pertsona bat bakarrik eta nahasita badago harengana hurbildu eta zerbait behar duen galdetzea.

JAZARLEARI DAGOKIONEZ

1. Jazarpen-egoera baieztatutakoan, gertaeren lehenengo balorazioa egin beharko zenuke (larritasuna, intentsitatea, arriskua, errepikapena, nahitasuna), protokoloaren arduradunari eta/edo segurtasun-taldeari —gertaeren larritasunaren arabera— informatzeko.
2. Jazarpen-egoera larria bada, abisatu protokoloaren arduradunari, eta azaldu iezaiozu, lasai, gertaerak larriak izan direla edo direla, hura segurtasun-taldearekin koordinatu ahal izan dadin, baldin eta esku-hartzean talde horren laguntza behar badu.
3. Jazarpen-egoera larria bada, halaber, saia zaitez jazarlearen deskribapen fidagarri eta zehatza lortzen, orokortasunak eta aurreiritziak edo estereotipoak bazter utzita.
4. Nolanahi ere, abisatu protokoloaren arduradunari, esku-hartzea balora dezan, abisua eman dezan, erreparaziorako edo jokabidea zuzentzeko prozesua has dezan edo segurtasun pribatuari abisa diezaion, jazarlea kanporatzeko edo atxikitzeko, jazarriak hala eskatu badu.
5. Azaldu iezaiozu zertan datzan protokoloa eta zer lotura daukan bere ekintzekin. Hitz egin irmo, arbuioa erakutsiz, baina, aldi berean, izan ezazu hausnartzera bultzatzen jarraera, erantzukizuna bere gain hartzea eta jokaera eraldatzea sustatzeko.
6. Esan iezaiozu bere jarduketak salaketa penala ekar dezakeela jazarriak hala erabakitzen badu.
7. Beharrezko ikusten baduzu, esan nagusiei gertatutakoaren berri emango diezula.
8. Era berean, esan tokitik bota dezaketela.
9. Pertsona gertaeren erantzukizuna bere gain hartzeko prest agertzen bada, hausnartzeko toki bat eskaini diezaiokegu, bai erreparazioa eta gertaerak ez errepikatzeko bermea sustatzeko, bai establezimendutik kanpo bere jokaera jorrazteko eta jokaerari buruz hausnartzeko dauden baliabideen berri emateko.

10. Horrek inola ere ez du salbuetsiko balizko ondorioetatik, hala nola jazarriaren salaketatik edo kanporaketatik.
11. Salaketa penala jarri nahi bada, jazarlea establezimendutik kanporatuko bada edo jazarleak jarrera bortitza badu eta gertatutakoaren inguruan hausnartzeko inolako asmorik erakusten ez badu, lokaleko segurtasun-taldeari edo poliziari deribatuko zaio egoera, beharrezko ekintzak eta koordinazioak gauzatu ditzaten.

3. AGERTOKIA

SEXU-IZAERADUN DISKRIMINAZIOAK, JAZARPEN ARIN ETA PUNTUALAK ETA EKINTZA GOGAIKARRI EDO DESATSEGINAK

- **Tximeletak** (650 80 10 80) zentroa guztiz baliozkoa da kasutan arreta osoa emateko. Horri buruzko informazioa eman diezaiokezu, edota triptikoa eman, berak deitu nahi badu ere, edo, are, bere ordeztzeko prestasuna erakutsi. Ezetz esaten badizu, beti deitu ahalko du berak gero.

EGOERA HAUEN ERAGINPEKO PERTSONARI DAGOKIONEZ

1. Beti ziurtatuko dugu egoera diskriminatzaile edo gogaikarri bat gertatzen ari dela eta egoerak gure esku-hartzea eskatzen duela. Hori dela-eta, beste batek abisatu badigu, lehenik eta behin harengana hurbilduko gara beti, ondo dagoen eta laguntzarik behar duen galdetzeko.
2. Egoera diskriminatzaile edo gogaikarri bat gertatzen ari dela egiaztatzen baduzu, esan pertsonari protokolo bat dagoela eta taldeak entzun egingo diola, gertatutakoa komentatu edo horren berri eman nahi badu.

3. Pertsona modu proportzionatuan ari bada bere burua defendatzen, ondo hautatu beregana hurbiltzeko momentua, eta baloratu esku hartu behar duzun edo, bestela, egoera autogestioz aurrera egiten ari den, gatazka handiagorik sortu gabe.
4. Ondo dagoela eta laguntzarik eskatzen ez badu, esan iezaiozu edozein unetan jaso ahalko duela zure laguntza eta establezimendua sexu-askatasunarekin eta tratu-berdintasunarekin konprometituta dagoela.
5. Pertsonak protokoloaren arduradunak entzutea eskatzen badu, jar zaituz erreferentearekin harremanetan, ahalik eta azkarren, eta komunikatu zer behar duzun, lasai.
6. Propio prestatutako tokian artatzeko aukera eskaini. Ahal bada eta hala nahi badu, ondoan eduki ahalko ditu konfiantzazko pertsonak.
7. Galde iezaiozu gertatutakoari buruz, hiru helburu nagusi hauek aintzat hartuta:
 - Erasotuari aurreiritzirik gabe entzun eta laguntzeko gune bat eskaintzea.
 - Gertaerak pertsonarengan izan duen inpaktua baloratzea, baita gertaeren larritasuna ere.
 - Gertaerei buruzko informazio gehiago lortzea: non gertatu den, nork egin duen...
8. Lehenengo hartu-emanaren ondoren, jarduteko hiru bide eskainiko dizkiogu:
 - Besterik gabe, suspertu eta gertaeren inpaktua murrizteko toki bat eskaini diezaiokegu, bere lagunen bila joan gaitezke (bakarrik badago), eta aisialdigunera itzultzen edo, nahiago badu, irteerara lagundu diezaiokegu.
 - Jazarpena edo ekintza gogaikarria gertatu den testuinguruak gatazka bestela konpontzeko aukera ematen badu, alderdien arteko bitartekaritza susta daiteke, ekintzen egilea erantzule egin eta jokabidea ez errepikatzeko konpromisoan nahiz kaltetuari erreparazioa emateko borondatean inplikatzeko.

- Jasotako jokabidea salagarria dela esango diogu kaltetuari. Egoera salatu nahi badu, segurtasun-langileen esku utziko dugu; haiek beren protokoloari jarraituko diote, edo poliziari deitu. Poliziak egokitzen den moduan jardungo du, inguruabar eta egitate zehatzak kontuan hartuta. Hala ere, nabarmendu beharra dugu protokoloaren arduradunak beti emango duela gertatutakoaren berri eta, ahal bada, ekintza diskriminatzailea egin duen kolektibo, talde edo pertsonarekin esku hartu ahalko duela, gertaerak ez errepikatzea bermatzen saiatzeko asmoz.
9. Erasotuak atzera egin eta alde egin nahi duela esaten badizu uneren batean, bere erabakia onartu. Horrelakoetan, eman iezaiozu triptiko orokorra, besteak beste Tximeletak zentroko telefono-zenbakia jasotzen duena.
 10. Eragindakoa drogak edo bestelako substantziaren bat hartzeagatik oso erasanda dagoela eta horrek bere ekintzen gainean erabakitzeko ahalmenari dagokionez zaurgarritasun-egoera handiagoan jar dezakeela hautematen baduzu edo bakarrik eta nahasita badago, lagunen bila laguntzeko aukera eskain diezaiokegu, bertan badaude.
 11. Elkarrizketa amaitutakoan, komenigarria izango litzateke protokoloaren arduradunari zer gertatu den komunikatzea, intzidentziak bildu ahal izateko.

KALTETUAREN INGURUNEARI DAGOKIONEZ

1. Ekintzek eragindakoarengan izandako inpaktuari harrera egitea, epairik gabeko bidelaguntzarako gune bat sortuz.
2. Erasotuaren erabakiak errespetatzea.
3. Festan bizitako esperientzia onak berreskuratzen eta bere buruaren alderdi onak nabarmentzen laguntzea, egoera gaitzen laguntzeko

EKINTZA EGIN DUEN PERTSONARI DAGOKIONEZ

1. Ekintza egin duen pertsona tokian badago eta berekin hitz egin ahal badugu, bere jarrera pertsona horren sexu-askatasuna eta adierazpen-askatasunerako eskubidea urratzen ari dela esango diogu.
2. Hizkera pedagogiko baina irmoa erabiltzen saiatuko gara, eta protokoloan jasotzen diren ekintzei buruzko informazioa eskainiko diogu, horrela jokatzeko egokia ote den hausnartzen laguntze aldera.
3. Diskriminatzen edo sexu-izaeradun ekintza gogaikarri eta desatsegina egiten ari denaren eta eragindakoaren artean egoera gatazkatsua sortzen bada, berehala abisatuko diogu protokoloaren arduradunari eta/edo segurtasun-taldeari, egoeraren gaineko ardura har dezaten, bai gatazkan bitartekari arituz, bai kanporatu egingo dutela abisatuz, bai poliziari deituz, baldin eta beligerantziak gora egiten badu eta erreparazioa emateko jarrerarik ez badago.
4. Azaldu iezaiozu zertan datzan protokoloa eta zer lotura daukan bere ekintzekin.
5. Esan bere jokaerak administrazio-arloko zehapena jaso dezakeela.
6. Beharrezko ikusten baduzu, esan nagusiei gertatutakoaren berri emango diezula.
7. Pertsonak ekintzen erantzukizuna bere gain hartzeko prestasun objektiboa badu, bi bide izango ditugu aukeran:
 - Eragindakoak hala nahi badu, alderdien arteko bitartekaritza susta zenezake, ekintzen egilea erantzule egin eta jokabidea ez errepikatzeko konpromisoan nahiz kaltetuari erreparazioa emateko borondatean inplikatzeko.

- Eragindakoak bitartekaritza egin nahi edo behar duen gorabehera, hausnartzeko toki bat eskain diezaiokezu, bai erantzukizuna bere gain hartzea eta gertaerak errepikatuko ez dituela bermatzea sustatzeko, bai establezimendutik kanpo bere jokaera jorratzeko eta jokaeraren gainean hausnartzeko dauden baliabideen berri emateko.

DISKRIMINATU EDO AIPATUTAKO EKINTZAREN BAT EGIN DUEN PERTSONAREN INGURUNEARI DAGOKIONEZ

1. Garrantzitsua da ekintzen aurrean arbuio-jarrera edukitzea, pertsona bere ekintzen inpaktuaz jabetu dadin.
2. Pertsonak hausnartzeko jarrera aproposa badu, garrantzitsua da gune bat sortzea, pertsonak hitzez azaldu ahal izan dezan zerk eraman duen ekintza horiek egitera eta, horrela, arrazoi horietan esku hartu ahal izan dezagun. Era berean, garrantzitsua da pertsonak erreparazioa emateko eta jokabidea ez errepikatzea bermatzeko proposamenak egin ahal izatea.
3. Kasu horretan, garrantzitsua da inguruneari arbuio-jarreraren eta harreraren artean oreka aurkitzen laguntzea; era berean, taldean hausnartzeko gune bat sortu beharko litzateke, hausnartzeko eta erreparazioa emateko borondateari harrera egiteko

6. PROTOKOLOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta bi fase bereizitan jardungo du. Lehenik eta behin, ezarpenaren lehenengo fasea martxan jartzeko batzorde motorra izango da. Bigarrenik, atxikitako areto eta lokaletan protokoloa bete ote den eta ondo funtzionatu ote duen ikusteko jarraipena egingo du.

BATZORDEKIDEAK

- Berdintasun Zerbitzuko langileak eta/edo indarkeria matxisten arretan espezializatutako langileak.
- Gaueko aisialdiguneetan protokoloa aplikatzearen arduradunak.
- Komunitateko agente giltzarriak (aurreko bi puntuetan azaldutakoek aukeratuko dituzte).

BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

- Lokalek atxikitze eta protokoloa betetzeko gutxieneko betebeharrak betetzen ote dituzten begiratzea: txostenak, kartelak, triptikoak eta abar.
- Aretoei eta aisialdiguneei protokoloaren aplikazioari buruzko zalantzak argitzea.
- Lokalei aholku ematea, protokoloan jasotzen diren egoerek kaltetutako pertsonak deribatze dauden udal-zerbitzuen inguruan.
- Egon litezkeen atxikipen berriak (edo kanporaketak) baloratzea sei hilez behin.

FUNTZIONAMENDUA

- Batzordearen barruan, Berdintasun Zerbitzuko erreferentziazko teknikari bat egongo da, indarkeria matxisten arretan espezializatua, eta hari azaldu ahalko zaizkio, aldizka, sortzen diren zalantzak edo kontsultak.
- Batzordea oro har sei hilez behin elkartuko da, ohikotasunez, informazioak eguneratu eta egon litezkeen atxikipen berriak baloratzeko.

PROTOKOLORA

ATXIKITZEA

Gaueko aisialdiko lokalak eta horrelako jarduerak antolatzen dituzten entitateak borondatez atxikiko dira protokolo honetara. Gasteizko gaueko aisialdiko lokalek, protokolora atxikitzeke, formalki sinatu beharko dute atxikipen-agiria, eta horrek dakartzan konpromisoak onartu.

Protokoloaren jarraipen-batzordea arduratuko da sinatzaile guztiak protokoloa aplikatzeko baldintzetan daudela eta zehaztutako betekizunak betetzen dituztela ziurtatzeaz. Protokolo honen jardun-eremua Gasteizko eremu pribatuko jaiguneetara eta gaueko aisialdiguneetara mugatzen da.

Atxikitako lokalek zenbait jarduketa garatu beharko dituzte protokoloaren esparruan:

- **Prestakuntza.** Protokolora atxikitzean, lokaletako arduradunek nahiz langileek konpromisoa hartzen dute beren lokaletan emakumeei eta genero- edo sexu-disidenteei egindako erasoak protokoloaren arabera artatzeko. Protokoloaren arabera erantzuna emateko, protokolora atxikitako lokalek konpromisoa hartzen dute langileak sexu-indarkerien prebentzioan, detekzioan eta jarduketan trebatzeko, baita prestakuntza hori eta protokolo jarraibideak barne-mailako prestakuntza-prozesuetan eta langile berrien harreran txertatzeko ere.

Udalak sustatu eta finantzatuko du prestakuntza hori. Aldizka eskainiko da, langile berriak etenik gabe trebatzeko. Prestakuntza egiten dutenek akreditazio bat jasoko dute, eta Udalaren jabetzako datu-base batera sartuko dira, lantokia aldatuz gero prestakuntza errepikatu behar izan ez dezaten.

Udalak akreditazio bat emango du, langileek CVan meritu gisa sar dezaten. Gasteizko Udalak materiala eskainiko die. Instalazioetan gertatzen diren sexu-indarkeriako kasuetan nola jardun jakiteko oinarrizko informazioa jasoko du material horrek, eta lokalek enplegatuen harrera-prozesuetan erabiliko dute.

→ **Prebentzio-ekintzak.** Protokolara atxikitako lokalek konpromisoa hartzen dute errespetua sustatuko duen aisialdi-eredu bat garatzeko, jai-bizipena sexu-askatasuna bermatzeko moduan garatzeko oinarrizko baldintzak ziurtatuko dituen:

- Protokolo honetara atxikitako lokal guztiek egiaztatuko dute lokalen barruan edo inguruan egon daitezkeen puntu beltzak berrikusi dituztela, egokitu ditzaten eta, horrela, ziurgabetasun-sentsazioa saihestu dezaten.
- Sistematikoki berrikusiko dute aisialdi-eskaintza, programazioan nahiz hedapenean, genero- eta sexu-disidenteak iraintzen dituzten eta emakumeak gauza bihurtzen edo estereotipatzen dituzten ekintzak saihesteko, baita sexuan edo generoan oinarritutako desberdinkeriak areagotzen dituzten mezuak saihesteko ere.
- Konpromisoa ikusgai egingo dute, protokoloaren irudia/ marka erabiliz, kartelen/seinaleen bidez: bitarteko horiek argi adieraziko dute lokala eraso matxisten aurka dagoela eta erasoari aurre egiteko protokolo bat daukala. Halaber, protokolo honetara atxikitzeak berekin dakar elkarrekin adosten ditugun sentsibilizazio-ekintzetan parte hartzea.
- Beste agente batzuekin sarean egingo dute lan, indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazio-, prestakuntza- eta arbuio-arloetan.

Jarraipen-batzordeak erabakitako «Onarpen-politika» aplikatuko dute.

→ **Erasoen aurrean laguntzeko jarduketak.** Protokolara atxikitako lokalek konpromisoa hartzen dute indarkerien aurrean laguntzeko hitzartu diren jarraibideak martxan ipintzeko. Protokolotan, hiru agertokitan sailkatu ditugu indarkeriak:

- 1. agertokia. Indarra, indarkeria edo sumisio kimikoa erabiliz egindako sexu-erasoak eta larderiaren edo derrigortze psikologiko larrien bidez egindako sexu-erasoak
- 2. agertokia. Sexu-jazarpena.
- 3. agertokia. Sexu-izaeradun diskriminazioak, jazarpen arin eta puntualak eta ekintza gogaikarri edo desatseginak. Halaber, parte hartuko dute hirian —zehazki, protokolara atxikitako aisialdiko lokaletan— eraso matxistaren bat gertatzen bada sustatuko diren arbuio-ekintzetan, biktimekin eta erasoaren gertaleku izan den lokalarekin elkartasuna erakusteko.

1. EGOERARAKO ERANSKINA

INDARKERIA EDO SUMISIO KIMIKOA ERABILIZ EGINDAKO SEXU-ERASOAK / LARDERIAREN EDO DERRIGORTZE PSIKOLOGIKOEN BIDEZ EGINDAKO SEXU- ERASOAK

BIKTIMARI EMATEKO INFORMAZIO-ESKUORRIA

Salatzea erabaki zein ez, babesa eta arreta psikologiko nahiz medikoa jasotzeko eskubidea daukazu, erabakitzen duzun moduan bideratu dezazun jasandako erasoak.

- **Tximeletak** - Sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko zentroan, sostengua eta informazioa emango dizkizute, eta hurrengo urratsetan lagundu, bai sexu-eraso baten biktima izan bazara, bai beste norbaiti nola lagundu jakin nahi baduzu. Taldeak urteko egun guztietan egiten du lan, asteko zazpi egunetan, eguneko 24 orduetan. Telefono-zenbakia: 650 80 10 80.
- Halaber, mediku-zentro batera joan zaitezke, eragindako minarengatik babes emozionala jasotzeko eta erasoaren frogak erregistratzeko. Sexu-erasoaren osteko lehenengo orduak erabakigarriak dira ikerketaren emaitza egokia izatea bermatuko duten zantzuak lortzeko. Erasotzaileak droga edo toxikoren bat eman dizulako susmoa baduzu, egokitzen diren probak egingo dizkizute.
- Bortxaketetan eta sexu-erasoetan, DNA-laginak dira froga objektibo bakarrak. Erasoa sumisio kimikoaren bidez egin bada, lehenengo orduak giltzarriak dira biktimaren gorputzean substantzia jakin batzuk detektatzeko. Hori dela-eta, ez garbitu edo dutxatzea eta arropaz ez aldatzea gomendatzen dizugu, bai eta, ahoaren bidez bortxatu bazaituzte, mediku-zentro batera joan arte elikagairik eta edaririk ez hartzea ere.

- Gasteizko erreferentziarako larrialdietako mediku-zerbitzua Txagorritxu Ospitalea da.
- Ospitalean egonik salatzea erabakitzen baduzu, ospitalea bera arduratuko da lesioen txostena guardiako epaitegira bidaltzeaz eta poliziarri eta auzitegi-medikuari abisatzeaz.
- Halaber, hurbilen duzun polizia-etxean edo guardiako epaitegian jar dezakezu salaketa zuzenean; azken kasu horretan, zerorrek eraman beharko duzu medikuaren txostena. Gogoratu edozein unetan eska diezaiokezula laguntza Tximeletak zentroari.
- Ospitalean egonik salatu nahi ez baduzu, jakin ezazu ospitaleak nahitaez eman behar diela edozein sexu-erasoren berri agintaritzak judizialei, baita ados ez bazaude ere.
- Salaketa jartzen baduzu bakarrik hasiko da erasotzailearen aurkako zigor-prozedura, adingabea bazara izan ezik; horrelakoetan, Fiskaltzaren salaketarekin prozedura abiatzen da. Zigor-prozedura gogorra izan daiteke, eta ez du erasotzailearentzako zigor "justurik" bermatzen, baina hari aurre egiteko eta haren zigorgabetasuna saihesteko modu bakarra da.
- Salaketa jartzeko orduan, gogoratu poliziaren bulegoetan eta bulego judizialetan abokatuaren laguntza jasotzeko eskubidea duzula. Eskatzea gomendatzen dizugu, abokatu batek ziurtatu dezan prozesua ondo doala.
- Era berean, sexu-erasoetan eskarmentu handia duten entitate juridiko espezializatuak daude: webgune honetan begiratu ditzakezu udal-zerbitzu eta -baliabideak.
- Administrazio-egoera irregularrean bazaude ere, larrialdietako osasun-zerbitzuak doan jasotzeko, interpretea edukitzeko eta, salatu nahi baduzu, salaketa jartzeko eskubidea duzu. Tximeletak zentroan informazioa emango dizute, baita lagundu ere.

Salaketa jartzeko denbora-tarte bat daukazu: berehala egin nahi ez baduzu, ospitalera joan zaitezke, bai prebentzio-tratamenduak jasotzera, bai frogak biltzera, aurrerago salatu nahi baduzu ere.

2. ETA 3. EGOERETARAKO TRIPTIKOA

INDARKERIA MATXISTAREN ARLOKO BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK JASOTZEN DITUEN TRIPTIKO OROKORRA

Aintzat hartu behar diren baliabideak, biktima bideratzeko:

- **Tximeletak - Sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko zentroa.** Telefono-zenbakia: 650 80 10 80. Tximeletak zentroan, sostengua eta informazioa emango dizkizute, eta hurrengo urratsetan lagundu, bai sexu-eraso baten biktima izan bazara, bai beste norbaiti nola lagundu jakin nahi baduzu. Taldeak urteko egun guztietan egiten du lan, asteko zazpi egunetan, eguneko 24 orduetan.
- **SATEVI. Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua.** Tel.: 900 840 111. 51 hizkuntzatan artatzen dute eta entzumen-eta/edo hizketa-desgaitasuna duten pertsonak ere arta ditzakete bideo-interpretazioko web-kanal baten bidez. Biktima diren emakume guztiei emango diete erantzuna, baita haien senideei edo hurbilekoei ere. Zerbitzua berehalakoa, anonimoa, konfidentziala eta doakoa da, eta ez du arrastorik uzten telefono-fakturan. Urtean 365 egunez dago erabilgarri, eguneko 24 orduz.
- **Udaltzaingoa.** Tel. orokorra: 092 (ordainpekoa). 945 15 80 00 (doakoa). Agirrelanda 8. Salaketa jartzeko tokia izateaz gainera, indarkeria matxistan eta familia barruko indarkerian espezializatutako talde bat dauka. Indarkeria LGTBIfobikoko kasu bat salatu nahi baduzu, Udaltzaingoaren Salaketen Taldearekin harremanetan jarri beharko duzu (ustezko gorroto-delitua delako). Web-orrian kontsultatu dezakezu.
- Indarkeria matxistaren kasuetan, **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (UGZ)** dira erreferentziazko zerbitzu nagusia, eta inolako konpromisorik gabe informatzen dute prozeduren, baliabideen edo sor litezkeen zalantzen inguruan. Gasteizen bizi bazara eta ez badakizu zein gizarte-etxe dagokizun, bilaketa azkarra egin dezakezu Udalaren webean horretarako prestatu den estekan, zure helbidea sartuta: <https://www.vitoria-gasteiz.org/k01-06w/k0106Action.do?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&paginaK0106=donde>

- **GLUZ Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua.** Tel.: 945 16 12 10. San Antonio 10. Edozein unetan joan zaitezke bertara, edo deitu, baita larrialdia ez bada ere. Premiaz esku hartzea behar baduzu edo arrisku-egoeran bazaude, zuzenean deitu dezakezu GLUZera.
- **HEGOAK** (arreta psikologiko eta juridikoa). Aurretiko hitzordurako tel.: 945 15 10 15. Aurretiko hitzordurako weba: <https://web.araba.eus/es/servicios-sociales/violenciacontra-las-mujeres-cita-previa>. Doako zerbitzu espezializatu honetan, aurretiko hitzordua eskatu ahalko duzu genero-indarkerian espezializatutako aholkularitza juridikoa eta arreta psikologikoa jasotzeko.
- **IKUSGUNE.** Gasteizko LGTBIfobiaren kontrako udal-behatokia. Kontsultetarako tel.: 945 28 22 46. Eratorik izan bada: 633 30 96 53. Indarkeria LGTBIfobikoa gertatu bada, Ikusgune da informazio espezifikoagoa jasotzeko nahiz bidelaguntza eskatzeko tokirik egokiena. Emaila: info@ikusgune.eus
- **Emakumeen Etxea.** Tel.: 945 16 12 14. Etxanobe jauregia (Santa Maria kalea 11) Emaila: emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city / igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org. Hemen, beste emakume batzuk ezagutu ahalko dituzu, eta aliantzak sortu. Etxeak hiriko talde eta elkarteek proposatzen dituzten prozesu eta egitasmo feministak hartzen ditu. Gainera, Sorgineneak kudeatzen duen liburutegi feminista bat dauka, Eleen Ganbara. Halaber, Jabetze Feministarako Eskolaren jarduera asko eskaintzen ditu, horixe baita Etxearen prestakuntza-tresna nagusia, zeinak hamaika edizio baino gehiago baitaramatza hirian feminismoa hedatzen, prestakuntza- eta kultura-proposamenen bidez: hitzaldiak, ikuskizunak eta proiektzioak, irakurle-klubak, ikastaroak eta lantegiak eta #FeminismoanItzel egitasmoa (haur eta nerabeentzat).

ATXIKIPEN-AGIRIA

Izena:

Abizenak:

NAN-zk.:

Hau ordezkatzuz:

Agiri honen bidez «Gasteizko gaueko aisialdi pribatuko testuinguruetan gertatzen diren sexu-izaeradun erasoak, jazarpenak, diskriminazioak eta jokabide gogaikarriak jorratzeko protokolora» ATXIKITZEN DA.

Protokolo hau sinatzen dugun aisialdiko lokalok:

- Geure egiten dugu Gasteizek indarkeria matxistarik gabeko hiria lortzeko duen konpromisoa, bai eta herritar guztiak bizitzako eremu guztietan aske izateko guneak eraikitzekoa ere. Hortaz, geure egiten ditugu, era berean, Gasteizko Udalak Indarkeria Matxistaren aurrean Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloaren printzipioak.
- Indarkeria matxistak giza eskubideak urratzen ditu, genero-desberdinkerien adierazpenik larriena da, eta, batez ere, emakumeei eragiten die, baina baita sexu-joeragatik edo genero-identitateagatik zein -adierazpenagatik indarkeria eta diskriminazioak nozitzen dituzten pertsona guztiei ere. Ondorioz, errespetuan eta askatasunean oinarritutako eremuak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, erasotzaileek tokiz kanpo daudela jakin dezaten eta emakumeak nahiz genero- eta sexu-disidenteak, berriz, askeak izan daitezen eskubide guztiak —baita aisialdiaz gozatzekoa ere— baliatzeko.
- Indarkeria erabiltzea hautatzen dutenen erabakia da indarkeriaren kausa bakarra, bizi dugun desberdinkeriazko kulturaren emaitza. Aisialdiguneetan, tabernetan, diskoteketan edo festetan, ordena soziala errepikatzen da; hori dela-eta, aisialdiko baldintzek ezin dute bidea jarri indarkeria matxista justifikatzeko edo erasotzaileei zigorgabetasun-sentsazioa sorrarazteko.

Protokolo honek gizartea transformatu eta aldatzeko erreminta izan nahi du, eta berau sinatzen dugun lokalok konpromisoa hartzen dugu bertan ikuspegi feministarekin ezarri diren bidelaguntza-jarraibideei heltzeko, helburuen artean baitugu sektorean indarkeria matxistari erantzuteko eredu bateratu bat garatzen joatea. Hala, honako ekintza-ildo nagusi hauetan gauzatzen dugu konpromisoa:

- Protokoloaren jarraipen-batzordean parte hartzea: organo hori arduratuko da sinatzaile guztiok protokoloa aplikatzeko baldintzetan gaudela eta zehaztutako betekizunak betetzen ditugula ziurtatzeaz.
- Langileak indarkeria matxisten eta, zehazki, sexu-indarkerien prebentzioan, detekzioan eta jarduketan trebatzea, baita prestakuntza hori eta protokolo jarraibideak barne-mailako gainerako prestakuntza-prozesuetan eta langile berrien harreran txertatzea ere.

- Lokalen barruan edo inguruan egon daitezkeen puntu beltzak berrikustea, egokitu ditzagun eta, horrela, ziurgabetasun-sentsazioa saihestu.
- Aisialdi-eskaintza sistematikoki berrikustea, programazioan nahiz hedapenean, emakumeak iraintzen, gauza bihurtzen edo estereotipatzen dituzten ekintzak nahiz generoan edo sexuan oinarritutako desberdinkeriak areagotzen dituzten mezuak saihesteko.
- Konpromisoa ikusgai egitea, protokoloaren irudia/marka erabiliz, kartelen/seinaleen bidez: bitarteko horiek argi adieraziko dute lokala eraso matxisten aurka dagoela eta erasooi aurre egiteko protokolo bat daukala.

Protokolo honetara atxikitzeak ez gaitu salbuesten sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako protokoloa edukitzeko betebeharretik, zeina Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako Legean jasotzen baita (3/2007 Lege Organikoa, 48.1 eta 48.2 artikulua).

Hiriko agente aktiboak garen heinean, protokolo hau sinatzea dagokigu, eta engaiatu egiten gaitu: hiri honetan, emakumeek eta genero- nahiz sexu-disidenteeek aske sentitu behar dute, eta erasotzaileek baztertuta.

Sinadura

Vitoria-Gasteiz, 2024ko _____aren XXa

